

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2018

Joan zen azaroaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen eta bere bi fundazioen (Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa eta EHUren Uda Ikastaroak) ekonomia eta finantza jardueraren 2018ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ezin eman izan duen iritzirik Berariazko Geldikinaren zuzentasunaren gainean (69 milioi euro), zeinaren atal bat Gastu Orokorretarako Geldikintzat hartu behar bailitzateke.

Finantza egoerari dagokionez, **emaitza arruntak behera egin du** (bere horretan eutsi zaie sarrera arruntei, baina gora egin dute langile gastuek). Kapitalezko eragiketengatik emaitzak gora egin du, nagusiki, kapital-transferentziek ere egora egin dutelako. Unibertsitatea **ez da zorpetu**, zazpigarren urtez jarraian. Epaitegiak ondorioztatu du inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa dela, bai kapitalezko diru-laguntza bidez, bai berriz ere zorpetuta.

Txostenak, gainera, adierazi du 2018ko aurrekontuaren likidazioak **finantzaren oreka eta iraunkortasun printzipioak** betetzen dituela, Urteko Kontuetan jasotako informazioaren arabera.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak zuzentasunez bete duela 2018an ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege araudia; alabaina, unean uneko zenbait ez-betetze azaleratu dira bai **Langileriaren Gastuen** alorrean (irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik 588.881 euroren ordainsariak ordaintzea eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikerlariantzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditzea), bai **Administrazioko Kontratazioan** ere (iraungitako kontratuetan gastuak aitortzea eta hornidura espediente batean esleitutako zenbatekoaren gaintik gastua egikaritzea).